

“Plan Actívate” promozioaren lege-oinarriak

PROMOZIOA ATXIKITZEKO BULETINA

PROMOZIOAREN BALDINTZAK

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. merkataritzako erakundeak, zeinak egoitza soziala Bilbon baitu, San Nikolas plazako 4. zenbakian, eta A48265169 zenbakiko IFK baitu (aurrerantzean “BBVA”), promozio hau antolatu du, “Plan Actívate” deiturikoa (aurrerantzean “Promozioa”), zeina lege oinarri hauek zuzenduko baitute (aurrerantzean, “Lege oinarriak”).

1. Zertan datza promozioa?

Promozio honek mugikorretarako BBVAren aplikazioaren deskarga eta erabilera eta Ahora eta Ahora Gaztea txartelen erabilera bultzatzea du helburu www.bbva.es, m.bbva.es eta mugikorretarako BBVAren aplikazioen bidez BBVAn izena eman duten bezeroena.

Promozioaren baldintzak betez gero, 5,00 €-ko hoberia lortuko duzu kontuan.

2. Nori dago zuzenduta promozioa?

Promozioa hastean, 18 urte baino gehiago dituzten pertsona fisikoak dira promozioaren xede, baldin eta Espainiako lurraldean bizi badira eta BBVAk promozioan parte hartzeko hautatu baditu.

Promozioan parte hartu ahal izango duzu azken 2 urteetan ez baduzu parte hartu nomina, pentsioa edo langabezia prestazioa BBVAn helbideratzeagatik beste ezein promozioan.

BBVAk bere komunikazio kanalen bidez parte hartzeko gonbidapena bidaltzen dizunetik hartu ahal izango duzu parte promozioan: alta emateko prozesuan balidatu zenuen mugikor zenbakia, edo adierazi zenuen helbide elektronikoa.

3. Nork ezin du hartu parte promozioan?

Promozio honetan parte hartetik kanpo geratuko zara hura antolatzen aritu bazara, edo BBVAren edo haren enpresa taldearen jarduneko langilea edo aurretik erretiratutakoa bazara.

Orobat, nahiz eta lege oinarri hauetan adierazitako baldintzak bete, ezingo duzu promozioan parte hartu indarraldian eta hoberia eman arte BBVAri zerbait zor badiozu, iraungita egon arren galdagarria izanez gero. Kasu horretan, hoberia jaso aurretik erregularizatu beharko duzu egoera. Hoberia sartzeko eguna iritsita oraindik ez baduzu erregularizatu zorra, hoberia jasotzeko eskubidea galduko duzu, eta ez zaizu sartuko kontuan.

4. Zenbat irauten du promozioak?

Promozioan parte hartzeko epea 2020ko apirilaren 1a hasiko da, 00:00etan (Espainiako penintsulako ordua), eta 2020ko abenduaren 31 bukatuko, 23:59an (Espainiako penintsulako ordua), bi egun horiek barne (aurrerantzean, “indarraldia”).

5. Zer baldintza bete behar dituzu promozioan parte hartzeko?

Promozioan parte hartzeko, bezeroak hauek egin behar ditu:

- www.bbva.es, m.bbva.es eta mugikorretarako BBVAren aplikazioen bidez BBVAn bezero gisa alta eman izatea,
- eta promozioan parte hartzeko BBVAren gonbidapena jaso izatea.

6. Zer urratsi jarraitu behar diezu promozioan parte hartzeko?

Promozioan parte hartzeko eta 7. klausulako hobaria jasotzeko baldintzak betetzen badituzu, urrats hauei jarraitu behar diezu:

- Ziurtatu BBVA aplikazioa mugikorrean instalatuta daukazula. Ez badaukazu, deskarga ezazu denda ofizialetatik; Google Play Store eta App Store, Android eta iOS gailuetarako, hurrenez hurren.
- Ireki promozioan parte hartzeko mugikorrean edo posta elektronikoan jaso duzun gonbidapena;
- Egin klik gonbidapenaren estekan eta idatzi sarbide gakoak (erabiltzaile izena eta pasahitza) aplikazioan;
- Onartu lege oinarri hauek;
- Aktibatu Ahora txartela edo Ahora Gaztea txartela gonbidapena jaso eta hurrengo 30 egunetan, gonbidapena jaso baino lehen aktibatu ez baduzu.

7. Zein da hobaria, eta noiz jasoko duzu?

Parte hartzeko baldintzak betetzen badituzu eta aurreko puntuan adierazitako urratsak egin badituzu, 5,00 euroko hobaria jasoko duzu.

Lege oinarrietako baldintzak betez gero sartuko da hobaria. BBVAk txartelaren titularraren BBVA online kontuan sartuko du hobaria, lege oinarrietan ezarritako baldintzak egiaztatu ondoren eta, gehienez, sei (6) hilabeteko epean, promozioan parte hartzeko gonbidapena jaso zenetik.

Hobaria ezin izango da aldatu edo konpentsatu. Hura baztertuz gero, ez da ordezkorik eskainiko.

8. Nola ematen da hobariaren berri?

Promozioan parte hartzeko gonbidapena jaso eta gehienez sei (6) hilabetera emango da hobariaren berri, eta lege oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen direla ikusi ondoren.

Titular gisa hobariduna duen BBVAren online kontuan sartuko da hobaria, eta ohar hau idatziko gaien: "Plan Activate programako hobaria".

9. Zer dakar lege oinarriak onartzeak?

Legezko oinarri hauek onartuta, horiekiko adostasuna adierazten da, eta ontzat ematen da BBVAren irizpidea horien interpretazioan egon daitekeen edozein gatazka ebazteko. BBVAk ematen dituen argibideei jarraitu behar diete partaideek.

BBVAk eskubidea du zu deskalifikatzeko, hark hala nahi izanez gero, promozioa manipulatzeko baduzu, hura manipulatzeko saiatzen bazara edo lege oinarri hauetako zehaztapenak eta baldintzak urratzen badituzu.

BBVAk behar dituen erabakiak hartu ahal izango ditu promozioak dirauen bitartean sortzen diren gatazkak eta eztabaidak ebazteko, baldin eta erabaki horiek bidegabe kaltetzen ez bazaituzte eta bidezkoak badira.

Aurretik aplikagarriak ziren parte hartzeko baldintzak betetzen ez badituzu edo lege oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badituzu, ez duzu eskubiderik izango hobaria jasotzeko oinarrietan ezarritako baldintzetan.

10. Zer gertatzen da iruzur egin baduzu edo inork iruzur egiten badu?

BBVAk edo profesionalki promoziora lotuta dagoen edozein erakundek arazoren bat detektatzen badu edo susmatzen badu promozioaren garapen arrunta galarazten ari zarela, alde bakarrak zu promoziotik kanpo uztea erabaki ahal izango du. Ondorio horietarako, BBVAk beharrezko euskarri teknologikoak prestatu ditu, hobaria legez kanpo lortzeko parte hartzea aldatu nahi duen iruzurrezko, ohiz kanpoko edo doluzko jokaerarik bada hauteman dadin. Hortaz, BBVAk beretzat gordetzen du zu erregistrotik ezabatze eskubidea, erakutsi badu edo susmatzen bada deskribatutakoaren arabera arauz kanpoko jokaera bat duzula.

11. Zein da erreklamazio aldia?

Promozioaren erreklamazio aldia indarraldia amaitu eta hamabi (12) hilabete igarotakoan amaituko da.

12. Nola tratatuko dira zure datuak (pertsonalak)?

Datu pertsonalak babesteari buruzko legerian ezarritakoa betez, BBVAk jakinarazten dizu promozio honetan ematen dituzun datu pertsonalak BBVAren fitxategi batean gehituko direla (egoitza soziala: San Nikolas plaza 4, 48005 Bilbo), helburu hauetarako:

- a) Promozioa kontrolatzeko eta kudeatzeko, eta haren segimendua egiteko.
- b) Hobaria entregatzeko.

Edonoiz eta doan erabili ahal izango dituzu datu pertsonalak kontsultatzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkaratzeko dauzkazun eskubideak, bulegoetako batera joanda, egoitza sozialera gutun bat bidalita edo derechosprotecciondedatos@bbva.com helbidera mezu bat bidalita; NANaren kopia bat edo zure nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokide batena erantsi behar duzu.

13. Zer zerga ditu hobariak?

Baliteke hobaria jaso izanagatik zergaren bat ordaindu behar izatea; hortaz, kontuan izan ezazu errenta aitorpenean.

14. Zein da BBVAren erantzukizuna promozio honetan?

BBVA ez da arduratzen galera, hondatze, lapurreta, atzeratze edo bestelako hirugarrenei edo Interneti egozten zaizkien bestelako egoerez, zeinek promozioan parte hartzean eragina baitute.

BBVAk beretzat gordetzen du edozein parte-hartze edo partaide bertan behera uzteko eskubidea, promozioaren erabilera desegokiaren susmoak baditu.

Halaber, BBVA baztertu egiten du edozein izaera duen kalte-galerako edozein erantzukizun; izan ere, nahiz eta segurtasun neurriak hartu, partaideek zerbitzu eta edukien erabilera okerra egin dezakete, eta horien artean bereziki, nahiz eta ez modu eksklusiboan, baztertu egiten dira erabiltzaile batek edozein komunikazio klasetan hirugarren baten pertsonalitate ordezipenari lotutako edozein kalte-galerak.

15. Non kontsulta ditzakezu lege oinarriak?

Lege oinarri hauek Madrid go/ko notarioen goi elkargoko notarioaren aurrean gordailututa daude, D. Luis Carlos Troncoso Carrera jaunaren/ - D. Gonzalo Sauca Polanco jaunaren/ , andrearen aurrean, hain zuzen, eta eskuragarri daude BBVAren webgunean.

BBVAk ahalmena du legezko oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.

Onartu egiten duzu BBVAk geroratu, laburtu, atzeratu, aldatu, ezeztatu edo eten egin dezakeela promozioa, bere kontroletik at dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta, eta konprometitu egiten da zuri egoera hori jakinaraztera lehenbailehen.

Legezko oinarri hauen edozein klausula baliogabetzat jotzen bada, horren eraginik ez duten gainontzeko klausulak indarrean jarraituko dute.

16. Legeria eta forua

Eztabaidarik badago, Espainiako legeria aplikatuko da Madrilgo epaitegi eta auzitegietan.

Madril, 2020ko otsailaren 25ean.